

| OGP EUSKADI - FORO ERREGULARRAREN BILERA  |  |
|---|--|
| 2023ko urriaren 26a, osteguna   |  |
| BilbaoTIK Eraikineko Prestakuntza aretoa (Campo Volantin pasealekuko 1 zenbakia, Bilbo) |  |

|                     |   |
|---------------------|---|
| <b>Gai-zerrenda</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Foro Erregularreko kideen ongietorria eta aurkezpena.</li> <li>• Foro Erregularreko kide zibikoek 2021-2024 Ekintza Planaren tarteko ebaluazioari egindako ekarpenak azaltzea. Bateratzea.</li> <li>• Tallinen (irailaren 6an eta 7an) egin zen 2023ko OGP Global Summiti buruzko informazioa.</li> <li>• Herritarren parte-hartzerako iLab-a martxan jartzea.</li> <li>• OGPren eta Agenda 2030en artean dagoen lotura.</li> <li>• 2023ko Foro Irekia, edukirako ekarpenak (azaroan?)</li> <li>• Eskaerak eta galderak</li> </ul> |
| <b>Iraupena</b>     | 16:00etatik 18:40ra   |

| Erakundea                               | Pertsona   | Berlaratzea              |
|---|--|--------------------------|
| <b>Eusko Jaurlaritza</b>                | Miren Martiarena. Gobernu Irekiaren zuzendaria   | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Eusko Jaurlaritza</b>                | Matxalen Lauzirika. Herritarrentzako Arretako eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria                   | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Arabako Foru Aldundia</b>            |  | Ez                       |
| <b>Bizkaiko Foru Aldundia</b>           | Oihane Agirregoitia. Gobernu Onaren, Herritarrentzako Arretaren eta Zerbitzu Digitaletako zuzendaria | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>         | Goizeder Manotas. Gobernu Onerako aholkularia  | Online                   |
| <b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>         | Haritz Ugarte. Administrazioaren Berrikuntzaren eta Aldaketaren burua                                | Online                   |
| <b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>         | Mikel Pagola. Herritarren Parte Hartzearen zuzendaria  | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Bilboko Udala</b>                    | Ane Miren Ibañez. Modernizazio zuzendaria  | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Bilboko Udala</b>                    | Gotzone Zaldunbide. Herritarren Parte Hartzearen zuzendaria  | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Donostiako Udala</b>                 | Manu Narváez. Presentzia zuzendaria  | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Gasteizko Udala</b>                  | Alain Larreina. Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen zuzendaria                                      | Online                   |
| <b>Innobasque</b>                       | Gotzon Bernaola  | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Emakumearen Bilboko Batzordea</b>    | Arantza Otaolea  | Aurrez aurrekoa          |
| <b>Sareen Sarea</b>                     | Elena Blanco   | Online                   |
| <b>Euskadiko Gazteriaren Kontseilua</b> | Julen Sasiain  | Online                   |
| <b>Ibatuz</b>                           | Antxon Gallego   | Aurrez aurrekoa          |
| <b>UNICEF Euskadi</b>                   | Elsa Fuente  | Ezin duela jakinarazi du |
| <b>Eusko Ikaskuntza</b>                 | Beatriz Akizu  | Ezin duela jakinarazi du |
| <b>Mestiza elkarte</b>                  | Ana Molina   | Ezin duela jakinarazi du |
| <b>Osoigo</b>                           | Eneko Agirre   | Ezin duela jakinarazi du |
| <b>Arabako Kontzejuen elkarte</b>       | Joseba Terreros  | Ez                       |
| <b>Idazkari tekniko</b>                 | Koldobike Uriarte. Proiektuaren arduradun tekniko. Eusko Jaurlaritza                                 | Online                   |
|   | Ignacio Sanz. EDE Fundazioa  |                          |

## **1. Foro Erregularreko kideen ongietorria eta aurkezpena.**

---

Miren Martiarenak, Gobernu Irekiaren zuzendariak maiatzaren 28ko Foru Hauteskundeetan udaletako eta Foru Aldundietako ordezkari izan diren aldaketak direla eta, bileran daudenen aurkezpena egin du, baita ezin direla etorri jakinarazi dutenena ere.

## **2. Foro Erregularreko kide zibikoek 2021-2024 Ekintza Planaren tarteko ebaluazioari egindako ekarpenak azaltzea. Bateratzea**

---

Arantza Otaolea Foro Erregularreko presidenteordeak laburki azaldu ditu gizarte zibileko kideek irailaren 19ko bileran uztailean Eusko Jurlaritzak 2021-2024rako Ekintza-planaren tarteko ebaluazio-zirriborroaren harira egindako ekarpenak:

- Bildutako informazio guztia maiatzeko udal eta foru-hauteskundeak baino lehenagokoa da; bere ustez, OGPren laneko etenaldia islatzen du eta hauteskunde-garaiaren lehenagoko eta ondorengo uneetan gertatzen den geldialdiarekin lotuta dago.
- Era berean, dokumentuak egindako lana ondo biltzen duela uste dute, baina egindakoaren ebaluazio-itxura baino gordailu edo deskargu-txosten itxura handiagoa duela. Ebaluazioak, besteak beste, lortutakoa, prozesuaren potentzialtasunak, funtzionatu ez duena, txertatzeko hobekuntzak, administrazio publikoei dakarkiena, eta abar ere aztertu beharko lituzke.
- Bestalde, bigarren plan honetan lehenengoan baino astiroago lan egiten ari dela egiaztatu da. Hainbat faktorek eragiten dute: pandemiak, hauteskundeek, kanpoko ebaluazioak ekar lezakeen akuilu faltak, etab.
- 2021-2024 Ekintza-plana bukatu arte egiteke (mugarriak, ekintzak, kronograma, etab.) dagoenari buruzko informazioaren hutsunea nabari da ebaluazioan. Eskaera hau aurreikusitako lana epeetan gauzatu ahal izateko ardurarekin dago erlazionatuta; are gehiago, datorren urtean hauteskunde autonomikoak daudela kontuan izanda eta horrek beste geldialdi instituzional bat ekar lezake.
- Bestetik, Foro Erregularra osatzerakoan, instituzioek duten pisuarekin alderatuta, alderdi zibikoak edo herritarrek duten pisua balioesteko garaian edo gizarte zibilaren lan-gaitasunari Idazkaritza Teknikoak dakarkion pisua balioesterakoan ebaluazioak adeitasunez jokatzeko balioesten dute; izan ere, beste faktore batzuk direla eta (gai horri eskain dakizkion pertsonak eta denbora, lan-erritmoa, etab.), konpromiso-taldeetan edo kolidergoetan gizarte zibilak duen pisu erreala ez da handia, hori administrazio publikoen gain dago batez ere.
- Maila orokorragoan bigarren ekintza-plan honetan taldeetako parte-hartzea txikiagoa dela identifikatu dute, lan-erritmoa txikiagoa dela, egiten ari denaren ezjakintasun handiagoa. Ildo horretan, adierazi dute, esaterako, aurreikusitako emaitzak lortzeko, urtean Foro Erregularreko bi bilera soilik egitea gutxiegi dela.
- Ebaluazioaz gain, beste gai batzuen inguruko hurrengo gogoetak egin dira:
  - Momenturen batean parte hartu dutenak uneoro informatuta izateko beharra, beren ekarpenekin zer egin den, proiektuak ematen dituen pausoez... (“Bidaia-lagunekiko harremanak zaintzea”).
  - OGPn dauden foroak eta espazioak egoki artikulatu diren zalantza dago: Talde Eragilea, Foro Erregularra eta Foro Irekia.
  - OGP aterpea izateko beharra, Administrazio Publikoek beste alor batzuetan jada garatu dituzten, garatzen ari diren edo garatuko dituzten jarduerak txertatzeko.

Azalpen horren harira, hainbat parte-hartze izan dira:

Miren Martiarenak, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Irekiaren zuzendariak adierazi du esandakoa ebaluazioan islatzen saia daitekeela eta galdetu du ea bildutakoari gehitu nahi zaion edo bidalitako ebaluazio-txostena berrikustea nahi den. Bestalde, esan du foro bakoitzeko funtzioa biltzea ez dela ebaluazio honetako kontua; beraz, gai hori argitzeko beharra badago, beharbada hurrengo Foro Erregularraren bileran landu daitekeela.

Koldobike Uriartek, Eusko Jaurlaritzaren proiektu honen teknikari arduradunak tarteko ebaluazio-txostenarekin zerikusia duten zenbait alderdi azaldu ditu:

- Dokumentuan gehitu den informazioa ekainekoa da, orduan eskatu baitzen eragile desberdinentzako informazioa.
- Txostenaren gordailu-izaerari buruz, tarteko ebaluazioak Ekintza-planaren eragina neurtzeko helbururik ez duela azaldu du eta OGPren parametroak jarraitzen dituela: planifikatutako mugarrak, egindakoak, bete gabekoaren kausak, etab.
- Neurri zuzentzaile orokorrenak txostenaren bukaeran bildu dira, 5. atalean.
- Dokumentuak konpromiso bakoitzean ezarritako neurri zuzentzaileekin aurreikusitako emaitzetara iritsi ahalko den biltzen du.
- Era berean, kanpoko ebaluazioa Ekintza-planaren bukaeran egingo dela azaldu du. Horrelako ebaluaziorik egiteko beharrik ez da ikusi une honetan; izan ere, konpromisoen egoera ondoen ezagutzen dutenak eragile inplikatuak dira. Bat dator kanpoko ebaluazio bat egiteak jardueraren fiskalizazio handiagoa dakarrela diotenekin, baina une honetan ez da beharrezkotzat jotzen, batez ere betetzen ari dena bildu nahi baita.
- Aurreikusitako lan-plana gelditzen den denboran, 2024ko bukaerara arte, garatzeko denbora ez izatearen inguruan, onartzen du posible dela geratzen den denboran erritmoa estutu behar izatea eta aurtengo hauteskondeek erritmoa moteldu dutela. Hauteskunde autonomikoek ere baldintza dezakete, neurri txikiagoan izan arren; izan ere, instituzio bakarrari eragiten diote eta egin nahi den zati handi bat jada kontratatuta dago.
- Foro Erregularreko erakunde sozialek duten gaitasunari edo pisuari buruz, baieztatu du, besteak beste, Idazkaritza Teknikoaren baliabidearekin lagundu zaiela, lana errazteko helburuarekin. Beharrezkoa da zer neurritan den erabilgarria jakitea.
- Aurten bilera gutxiago izan direla onartu du, hein batean, udal hauteskundeak eta foralak zirela eta.
- Foro irekien formatua dela eta, onartu du 2022koa oso noranzko bakarrekoa izan zela eta hurrengoak formatu desberdina izan dezakeela; izan ere, espazio horrek, kontuak emateko ez ezik, zabal pentsatzeko balio beharko luke, herritarrek planteatzen dituzten erronketara irekitzeko, plan berrirako ideiak biltzeko, etab.
- OGPa instituzioek jada edonola ere garatzeko asmoa zuten proposamenak biltzeko erabiltzearen beldurraren inguruan, erantzun du Eusko Jaurlaritzaren kasuan ez dela horrela izan.

Miren Martiarenak gehitu du Foro Erregularraren aurtengo bileren arteko denborak Foroan presente dauden zazpi administrazio publikotatik sein egon diren aldaketekin izan duela zerikusia eta hauteskunde autonomikoek espazioaren funtzionamenduan aldaketa txikiagoa izango dutela. Dena den, administrazio publikoen barne-mailan proiektuan lanean jarraitu dute, aurreko bileran aurreratuta bezala.

Goizeder Manotasek ere, Gipuzkoako Foru Aldundikoak, adierazi du ez dutela aprobetxatu OGPren babesean edonola ere pentsatuta zituzten proiektuak garatzeko, baizik eta, alderantziz, proiektu honetan bestela sortuko ez ziren ideiak gauzatzen ari direla.

Gotzone Zaldunbidek, Bilboko Udalaren Herritarren Arretarako eta Parte Hartzerako zuzendariak alderdi sozialaren proposamenak tarteko ebaluazio-txostenean gehitzea proposatu du eta hurrengo mugarriak eta konpromiso bakoitzaren kronograma aipatu ditu besteak beste. Era berean, galdetu du ea OGPren jarduerak administrazioak aurreikusitako ekintzak txertatzeko erabiltzea zerbaitengatik bereziki esaten zuten.

Galdera horren harira, Idazkaritza Teknikotik azaldu edo zehaztu da gizarte zibilaren bileran esan zena ez zela gertatu zen zerbaitengatik esan, baizik eta saihestu beharrekotzat ikusten zela.

Matxalen Lauzirikak, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arretarako eta Zerbitzu Digitaletako zuzendariak esan du gizarte zibilaren hainbat proposamenek lekua izango luketela ebaluazio-txostenean eta gehitu beharko litezkeela. Beste batzuek, ordea, ez dutela txosten honekin zerikusirik, baina beste uneren batean erantzuna eman beharko litzaiekeela uste du. Ildo horretan, biak bereiztea eta lehenak jorratzea proposatu du.

Arantza Otaoleak Ekintza-planari geratzen zaion denboran garatzeko mugarriak eta ekintzak konpromisoen gauzatze-ebaluazioari eskainitako atalean gehitzea proposatu du.

Koldobike Uriartek, proiektuaren arduradun teknikoak, Ekintza-planaren ebaluazio-txostenaren eskema azaldu du:

- 1. atala. Lankidetzaren parte-hartzailearen eskakizunen betetze-maila biltzen du eta hiru taldeetan edo foroetan (Foro Erregularrean, Foro Irekian eta Foro Eragilean) egindako lana aitortzen du; konpromiso-talde bakoitzean egindako lana; eta konpromiso bakoitzaren lidergoari buruzko informazioa ematen du.
- 2. atala: OGP Euskadi webgunera kontu emate gisa igotako informazioaren berri ematen du.
- 3. atala: Puntu honetan konpromisoen betetze-maila ebaluatzen da (betetako mugarriak, lortutako emaitzak, bete ezin izan diren planifikatutako mugarriak, ez betetzearen kausak, aurreikusitako neurri zuzentzaileak eta konpromisoaren gauzatzearen balorazio orokorra).
- 4. atala: Aurreko puntuen inguruko Foro Erregularren oharrak eta proposamenak.
- 5. atala: Azken ondorioak eta ezartzeko proposamenak.

Matxalen Lauzirikak gizarte zibilak aipatutako alderdietatik txostenean gehitzeko egokiak direnak identifikatzea proposatu du. Horrez gain, ebaluazio-txostenarekin zerikusirik ez dutenak ikustea proposatu du, nola lantzen diren edo beste espazio edo une batean erantzuna nola ematen zaien ikusteko.

Matxalen Lauzirikak eta Gotzone Zaldunbidek uste dute gizarte zibilak egindako proposamenak Eusko Jaurlaritzak gehitu behar dituela, hori baita tarteko ebaluazio-txostena gauzatzeko erakunde arduraduna.

Bestalde, Gotzon Bernaolak txosteneko 4. atala ezabatzeko proposamena egin du; izan ere, Planaren ebaluazio-txostena Foro Erregular osoaren kontsentsuz egin beharreko dokumentua bada, ez du agertu behar Foroaren alderdi zibilak beste atal batzuetan esaten dena kritikatzeko duen puntu idatzirik. Era berean, gizarte zibilaren ekarpenak txostenaren osotasunean txertatzen diren ekarpen gisa ulertu behar dira.

Ildo beretik, Gotzone Zaldunbidek eta Manu Narváezek proposatu dute garrantzitsuak diren gizarte zibilaren gomendioak tarteko ebaluazio-txostenean gehitzeko eta sumatu diren gabeziak ahalik ondoen zehazteko.

Bestalde, Mikel Pagolak, Herritarren Parte Hartzearen zuzendariak, lehenago Matxalen Lauzirikak esan duenaren ildotik, adierazi du ebaluazio-txostenetik kanpo geratzen diren gizarte zibilaren zenbait ekarpen Foroaren funtzionamendua hobetzeko kontuan hartu behar direla.

Horrela bada, Idazkaritza Teknikoak dokumentu batean gizarte zibilak egindako proposamenak laburtzea adostu da eta Gobernuari bidaltzea, horrek ahal den neurrian ebaluazio-txostenean gehitzeko. Ebaluazio-txostena jasotako ekarpen horiekin aldatu ostean, Gobernuak berriz bidaliko dio gizarte zibilari, berrikusteko.

### **3. Tallinen (irailaren 6an eta 7an) egin zen 2023ko OGP Global Summiti buruzko informazioa.**

Goi-bilerara Miren Martiarena eta Arantza Otaolea joan ziren OGP Euskadiren ordezkari.

Miren Martiarenak jakinarazi du 5ean, Global Goi-bileraren aurreko egunean, OGP Local jardunaldia (OGP Camp) egon zela eta aliantza-estrategia ezagutzen jardun zutela. OGP Euskadiren kasuan instituzio-maila desberdinen arteko lankidetzaren inguruan Sareko beste kide batzuek erakutsitako interesa ere azpimarratu du. Ildo horretatik, OGP Local sarera kide berriak gehitzeko interesa dagoela dirudi. Administrazio publikoaren eta gizarte zibilaren arteko erlazioa ere jorratu zuten.

Parte hartu zuten espazio eta foro desberdinen artean, gobernu irekia eta ODSak lotzen zituen bat aipatu dute. Ildo beretik, jakinarazi dute Eusko Jaurlaritzaren eta zenbait herrialde nordikoren arteko 2030 Agendaren arduradunen bilera egon zela, tokiko mailan 2030 Agendaren inguruko esperientziak elkartrukatzeko.

Arantza Otaoleak, bestalde, sareko beste kide batzuek egindako feedbackaren berri eman du, OGP Euskadin egindako lan ona eta inizatibian administrazio maila desberdinak egotea azpimarratu dute. Era berean, gizarte zibileko kideei laguntzeko Idazkaritza teknikoaren irudia egoteari buruzko balorazio positiboak nabarmendu ditu.

OGP Euskadiz gain, goi-bilera horretara Estatuko Tokiko OGP sareko beste kide batzuk joan ziren: Kataluniako Generalitatea, Aragoiko Gobernuak eta Madrilgo Udala.

Goi-bilera horretan parte hartzearen ondorioz, beste tokiko OGPen administrazio-bileretako eskaerak jaso dituzte, São Paulotik, Costa Ricatik, Nuevo Leónetik (Mexiko) eta Bogotatik, besteak beste.

Mirenek Espainia Gobernu Irekirako Aliantzaren Zuzendaritza Batzordeko kopresidente hautatu dutela eta agintaritza 2024ko urrian hasiko duela ere jakinarazi du. Horregatik, 2025ean Goi-bilera Estatuko tokiren batean izango da.

Goi-bilerari buruzko informazio gehiago, hurrengo loturetan:

<https://www.ogp.euskadi.eus/noticia/2023/asistencia-de-ogp-euskadi-al-global-summit-2023-celebrada-en-tallin-estonia-el-6-y-7-de-septiembre/webogp00-content/es/>

<https://www.opengovpartnership.org/events/2023-ogp-global-summit-tallinn-estonia/>

<https://www.canva.com/design/DAFuhQooCU8/ty0rqV2YhGJ0q0c1SWtVxQ/view?website#4:e-l-alcalde-de-tallinn-dio-la-bienvenida-a-la-ciudad-a-los-miembros-de-ogp-local-y-otros-invitados-especiales-con-una-discusi-n-sobre-c-mo-la-participaci-n-ciudadana-puede-impulsar->

[la-implementaci-n-de-los-ods.-por-ejemplo-a-trav-s-de-una-asamblea-ciudadana-sobre-el-clima-como-la-que-est-planeando-tallin.](#)

#### **4. Herritarren parte-hartzerako iLab martxan jartzea**

---

Koldobike Uriartek martxan jarri berri den OGP Euskadiko herritarren parte-hartzerako ilab berritzailearen berri eman du. Ekimena “lankidetzaren eta espermentazioaren bidez herritarren parte-hartzean berrikuntza bultzatu nahi duen eragile-sare (publikoak, pribatuak eta komunitarioak)” gisa deskribatzen da. Ekimen hori 2018-2020ko Ekintza-planeko 3. konpromiso-taldeak diseinatu zuen, baina oraindik martxan jartzeke zegoen.

Azalpena egiteko PPTan agertzen den bezalaxe, ekimen honetatik espero diren emaitzak hauek dira:

- Agente eragileek, aktiboek eta ilab berritzailearen ezkutuko bultzatzaileek osatutako Euskadirentzako herritarren parte-hartzerako lehenengo sarea.
- Sarearen lana ahalbidetuko duen lankidetz-plataforma ezartzea hiru prospekzio-, espermentazio- eta transferentzia-zerbitzuetan.
- 4 proiektu esperimentalen gauzatzea eta jarraipena.
- 4 praktika onen transferentzia, orokortzeko.

Egindako aurkezpena jarraituta, mugarri nagusiak hauek dira:

1. Bulego tekniko eta softwarearen garapena kontratatzea.
2. Sarearen konfiguraziorako oinarriak garatzea eta lankidetz-sarea konfiguratzea.
3. Lankidetz-plataforma birtuala elkarrekin diseinatzea.
4. Plataformaren birtualaren garapen teknologikoa.
5. Espermentazio-zerbitzua martxan jartzea, eta proiektu esperimentalak gauzatzea.
6. Ikaskuntzak transferitzeko prozesua.
7. Parte hartutako ebaluazioa eta bigarren faserako jarraibideak.

Orain arte egindakoak:

- 2023ko urtarrilean onartutako kontratuak:
  - 1. lotea: ilab martxan jartzearen kudeaketa, bulego tekniko bat kontratatuta. Tipi gara S coop.
  - 2. lotea: Funtzioen analisia, garapena eta lankidetzako plataforma teknologikoa eraikitzea, software-garatzaille enpresa bat kontratatuta. Bilbomática.
- Lan-tresnak berriz planifikatzea eta martxan jartzea.
- Komunikazio-plana martxan jartzea.
- Agente eragileen, aktiboen eta ezkutukoaren sarea sortzeko kontaktua hasteko gutxieneko webgunea publikatuta, betiere, Euskadiko parte-hartzearen berrikuntza-mapa egiteko.
  - 
  - Garapen bidean dauden ekintzak:
- Talde eragilea sortzeko elkarriketak (profil instituzionala, zibikoa eta aditua).
- Parte-hartzearen berrikuntzako espermentuen deialdirako irizpideak sortzea.
- Plataformaren lankidetz alderdia garatzea (Share point eta teams).
  - Talde eragilea.
  - Agente aktiboen sarea.
  - Proiektukako taldeak.

Hurrengo pausoak:

- Azaroak 29, talde eragilea osatzeko bilera (esperimentu-deialdia sortzea).
- 2024ko urtarrila: esperimentu deialdia sustatzea.
- Otsaila: Esperimentuak hautatzea.
- Esperimentu-prozesua eta jarraipena
- Urria: Produktuak transferitzea.
- 2025eko urtarrila: Ondorioak eta bigarren ezarpen-faserako jarraibideak.

Koldobike Uriartek inizatibarekin lotuta diseinatutako komunikazio-planaren berri ere eman du, <https://ilab.euskadi.eus/inicio/> webgunearen garapenean datza, lehenengo newsletterren bidalketa, Irekian egindako zabalkundea, berria hainbat komunikabidetan agertzea, berriak argitaratzeko Instagram erabiltzea, etab.

OGP Euskadi webgunean informazioa ikusteko:

<https://www.ogp.euskadi.eus/noticia/2023/puesta-en-marcha-del-ilab-espacio-de-innovacion-en-participacion-de-euskadi/webogp00-content/es/>

Gotzon Bernaolak aipatu du gizarte zibilaren bileran gai horretaz hitz egin zela eta bilera honetako gai-zerrendan txertatzeko eskatu zela, inizatibaren inguruko informaziorik ez zuten pertsonak eta erakundeak baitzeuden eta sareetan jada informazioa agertu zen.

Matxalen Lauzirikak esan du inizatibari bultzada eman behar zaiola orain, egindakoa ozen esanda eta ahalik proposamen gehien lortzeko helburuarekin.

Aurkezpenaren ondoren, eztabaida- edo ekarpen-txanda Antxon Gallegoren hitz-hartzearekin ireki da, inizatiba honen lantaldean parte hartu zuen eta iLab inizatibarekin eta formatuarekin kritiko azaldu da; izan ere, bere iritziz, horretan diharduen beste inizatibarik egongo ez balitz bezala sortu zen eta askoz gehiago zeuden. Era berean, uste du inizatiba sorkuntza-prozesuan berrasmatu beharko zela, eremu horretako errealitatera hobeto egokitzeko asmoz. Asko aldatu da urteotan, beste administrazio publiko batzuetako parte-hartzeko berrikuntza-laboretegi batzuen sorkuntzarekin. Zentzu horretan, horiekin nola erlazionatuko den planteatu du. Horrez gain, adierazi du akats bat dela ekimen honen diseinuan parte hartu zuten pertsonen jakitea sareen bidez abian jarri zela.

Koldobike Uriartek erantzun du iLaben jardura ez dela beste instituzio batzuenarekin gainjarriko.

Mikel Pagolak esan du ArantzazuLabek prozesu berdina edo oso antzekoa egin zuela iaz.

Matxalen Lauzirikak erantzun du ArantzazuLabekin bildu direla eta egin zutena ez dela gauza bera. Gainera, erakunde horrek iLaben Talde Eragilean parte hartuko duela, eta horrek egiten dutena errepikatzeke edo gainjartzeko arriskua saihesten duela. Ekimen horrekin erreplika daitezkeen eta tresna gisa balio dezaketen esperientziak bilatzen dira. ArantzazuLabek eragilean eta esperientzien mapa egin zuela azaldu du. Bi ekimenek osagarriak izan beharko luketela uste du.

Miren Martiarenak arlo horretan lan egiten duten beste eragileekin koordinatzearen garrantzia nabarmendu du, egiten ari den ezer ez dela zapaltzen ziurtatuta.

Gotzon Bernaolak hitza hartu du esanez ekimena diseinatu zenean berrikuntzan lan egiten zuten eragile guztiekin hitz egin zela, asmoa ez baitzen beste inizatibarik ordezkatzeko, baizik eta esperientzio-laboretegia sortzeko.

Oihane Agirregoitia. Gobernu Onaren, Herritarrentzako Arretaren eta Zerbitzu Digitaletako zuzendari nagusiak aipatu du gaur egun administrazio publiko guztiak dabiltzala berrikuntzan lanean. Ildo horretatik, errespetuz lan egitea garrantzitsua dela uste du, marra gorriak zein diren jakitea, hortik aurrera espektatiba faltsurik ez dela sortzen zainduta, esperientziak identifikatzen eta sustatzen lan egiteko.

## **5. OGPren eta 2030 Agendaren artean dagoen lotura**

---

Elena Blancok OGPren eta 2030 Agendaren arteko sinergia bultzatzea proposatu du; izan ere, askotan OGPren lan-foroetan eta Euskadiko Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroan eragile berberak egiten dute bat. Eragileen kointzidentziaz gain, giltzarri diren elementuak daude bi prozesuetan: gobernantza, kontuak ematea, etab. Eskaera hori bi espazioetan egin dela jakinarazi du.

Miren Martiarenak erantzun du nahiz eta OGP Euskadi 2030 Agenda Foroan zuzenean ez dagoen, pertsona ugari (Miren Martiarena, Arantza Otaolea, Manu Narváez edo Oihane Agirregoitia) hartzen du parte ODSak betetzen direla neurtzeko administrazioen adierazleen inguruan lanean ari den talde batean. Ekimen bien egitura desberdina den arren, bien arteko antzekotasunak dituztela gehitu du; beraz, 2030 Agendaren Foroarekin berriz aztertuko dituzte egon litezkeen sinergiak.

## **6. 2023ko Foro Irekia, edukirako ekarpenak (azaroan?)**

---

Miren Martiarenak jakinarazi du administrazio publikoek hurrengo Foro Irekia aurrekoa baino parte-hartzaileagoa egitea pentsatu dutela eta, gainera, hurrengo Ekintza-planerako ideiak irteteko baliagarria izatea. Horren harira, Foroa eraikitzeko gai-proposamena eskatu dute eta esan du Talde Eragilearen bileran Adimen Artifizialaren inguruan lan egiteko ideia aipatu zela.

Arantza Otaoleak azaldu du gizarte zibilaren bileran iazko formatua ez errepikatzeari buruz hitz egin zela, konpromiso-taldeen aurkezpenen dinamikak eta ondorengo sari-banaketak ez baitio uzten tokirik elkarrizketari edo parte-hartzeari.

Matxalen Lauzirikak Foro Irekia egituratuko duen gaiari buruz pentsatzeko beharra mahaigaineratu du eta, hortik aurrera, dinamika parte-hartzaileari buruz pentsatzea, dinamika horietatik zer lortu nahi den kontuan izanda.

Gotzon Bernaolak eta Manu Narváezek esan dute orain artean Foroetan batez ere helburuen inguruan lan egin dela eta gai beraren inguruan jarduteak dinamika errepikatzea ekarriko lukeela; beraz, Adimen Artifizialaren gaia proposatzeak formatua berritzen lagunduko lukeela uste dute. Ildo beretik, Goizeder Manotasek proposatu du egungo eta etorkizuneko erronkak zein diren planteatzea, landu daitezkeen erronkak biltzeko modu gisa.

Hurrengo Foro Irekia Adimen Artifizialaren ingurukoa izateko proposamena ongi iruditzen zaien parte-hartzaile ugari egon arren (gainera, Gipuzkoako Foru Aldundian gai horren inguruan lanean dihardute), gizarte zibileko kideei kontsulta egitea adostu da, 15 eguneko epean proposamena zer iruditzen zaien esan dezaten edo besteren bat proposa dezaten.

Miren Martiarenak esan du 2024. urtearen erdialdean hurrengo Ekintza-planean lanean hasi beharko dutela; beraz, Foro Irekiak 2023. urtearen amaieran izan beharko lukeela edo 2024 hasieran, otsailean, beranduenez.



## **7. Eskaerak eta galderak**

---

Miren Martiarenak bi kontu adierazi ditu:

- Administrazio publikoren edo erakunderen batek Ustelkeriaren Aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren (UNCAC) Parteen Hamargarren Estatu Parteen Konferentzian (COSP) parte hartzea aurreikusita badu, Atlantan, Georgian (AEB) izango da 2023ko abenduaren 11tik 15era. Aliantza joango diren pertsonentzako bilera deitzeko aukera aztertzen ari da.
- Posta elektronikoko bidez bidaliko da Talde Eragilearen eta Foro Erregularraren hurrengo bileren egutegi-proposamena.